


**Lur mortuak****Núria Bendicho****Euskaratzailea:** Joxan Elozegi**Bilduma:** Narrazioa**Generoa:** Eleberri beltza**Formatua:** 14 x 20,50 cm.**Orrialdeak:** 212**Koadernaketa:** paperezko azala**Argitalpen data:** 2025/09/17**ISBN:** 978-84-9868-919-8**SALNEURRIA (BEZ gabe):** 18,27 €**SALNEURRIA (BEZ barne):** 19,00 €

HERIOTZA, LANDA GIROA, ODOLA, ELEBERRI GOTIKOA



9 788498 689198

**Sinopsia**

Hiru urtean kanpoan ibili ondoan, etxera itzuli da Joan, Capdevila familiako semea, eta heriotzarekin egin du topo berehalakoan. Bizkarretik egin dio norbaitek tiro gurasoei eta senideei bizi den etxaldean, eta haietako bat da, itxura guztien arabera, hiltzailea: ama, infernu batetik irten eta beste baten barrenean bizi dena; aita, ahul eta patuari gaina hartu ezinik aspaldian etsi duena; Tomàs, seme zaharrena, soraioa, zakarra eta hitz gutxiak; Maria, gogoz kontrako haurdunaldi bat dela medio sortetxera kondenatu dutena; Pere, etxetik alde egitea beste helbururik ez duena, eta mutikoa, elbarria eta basatia. Haien gainean odolaren madarikazioa, bortxazko heriotza bi eta sekretu izugarri bat.

Pindarrez beteriko debut distiratsua egin du Núria Bendichok literaturan *Lur mortuak*, bere estraineko eleberriaz. Ahots konstelazio baten moduan egituratua da patu izugarri batek markaturiko pertsonaiak aurkezten dizkigun narrazio gogor eta indartsu hau. Doilorra da Lur mortuak eleberria itxuratzen duen unibertsoa. Eta horratik ere, dena kutsatuz beti bat eta beti presente den hainbesteko doilorkeriari aurre egin nahi lioketen ontasun-mentuak sumatzen dira zenbaitetan mundu horretako pertsonaien lekukotasunetan.

**Egileaz**

**NÚRIA BENDICHO GIRÓ** (Bartzelona, 1995). Filosofian lizentziaduna da eta grekoko eta latineko irakaslea akademia batean. William Faulknerren irakurle amorratua eta mireslea, mundu erdian zehar bidaiatu du eta Danimarkan izeiak moztzen lan egin du. 2020an bere lehen eleberria, *Terres mortes*, Llibres Anagrama sarirako aurkeztu zuen, eta irabazi ez bazuen ere, epaimahaiak argitaratzea gomendatu zuen. *La Vanguardia* 2021ean katalanez idatzitako eleberririk onena bezala kontsideratua, Núria Bendichoren debuta Llibreter, Omnium eta Finestres sarietarako finalisten artean egon zen.